

Noaia!!



Atzo eta gaurko hautetsiak,
Gernikako Akordioaren alde



“Itsasoa”, Inauterietarako gaia
Martxoaren 5ean ospatuko da mozorro festa



*Txotxetik aqgarilou!
jarrailu usailou!*

**AIALDE
BERRI**

SAGARDOTEGIA

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31

DIGITAL+

**antenas
Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.

Orain Usurbilgo erdigunean
Ltd-ko kanal berri hauek
ikusteko aukera ...

elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com

t d t

Tapa eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2010 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2010eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2010

Noaua!
USURBIL

2010

392-432 zenbakiak

Albisteak iruditan !!

Lan mundua euskarara erakartzeko saiakera berria

Buruntzaldea osatzen duten sei budalerriak aspaldi ari dira lan munduan euskara sustatzeko elkarlanean. Urrats berri bat eman dute eta "Baietz gurean" egitasmoa jarri dute martxan.

Helburu nagusia Buruntzaldean ahalik eta enpresa gehienek jartzea abian euskararen erabilera normalizatzeko bitartekoak. Horretarako, Ahize-AEK hizkuntza-aholkularitzaren proposamen batean oinarrituta eta Bikain ziurtagiria erreferente hartuta, euskararen erabilera normalizatzeko bidera erakarri nahi dira eskualdeko enpresak. Buruntzaldeko herrietako 10 langiletik gorako enpresei zuzendutako egitasmoa da, hain zuzen.



PASA DEN OSTEGUNEAN PRENTSAURREKOA ESKAINI ZUTEN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordinatorak: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publikitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarreki ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

DIRULAGUNTZA DEIALDIAK _____ 5. OR.

SAGARDO EGUNA, MAIATZAREN 15EAN! _____ 9. OR.

URDAIRA SAGARDOTEGIA _____ 11. OR.

LEOK'K TALDEAREN KONTZERTUA _____ 14. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ **943 69 68 52 · 620 800 186**

**BENTA
TABERNA**

**Oilasko erreak
Ogitartekoak**

San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

TAXI

607 92 87 70

943 00 44 83

Angel (24h) USURBIL



LUIS ARANALDE

Utopia gidari

Pasa den abenduaren 27an ATZEGIren 50. urteurreneko festa egin zen Kursaal. 2.200 atzegizaletik gora elkartu ziren eta adimen urritasuna duten pertsonak izan ziren ekitaldia aurkeztu zutenak, nolako ilusio eta ametsak dauzkaten kontatu ere.

Nire ustez, gure gizarte honek (batzuetan hain arlotea) aurrea pausorik eman baldin badu, honetan izan da batez ere: adimen urritasuna dutenekiko atentzioan eta laguntzan.

Antzinako sozietateetan, ezindu psikiko edo fisikoen etorkizuna heriotza zen. Greziako Espartan, Licurgoren garaian (8.-9. mendean K.a.), legeak onartzen zuen jaiotzaz gutxitu edo elbarri zirenak Taigeto menditik behera tiratzea. Erroma inperialean ere antzekoa gertatzen zen: haur ezindu eta pertsona zaharrak Tarpeia arrokatik amiltzen zituzten. Kristautasunaren etorrerak aldatu zuen egoera negargarri hori: ezinduekiko duintasuna aitortu eta gertutasuna agertzea eskatzen zuen ebanjelioko mezuak. Hala ere, hirurogei urtetik gora dauzkagunok gogoratzen gara gure gizartean ia-ia ezkutatu egiten zirela horrelakoak.

Jose Luis Basoko Atzegiko gerenteak dionez, “duela 50 urte ezertxo ere ez zegoen horrelakoei laguntzeko; egun, sozietatea kontzientziatu da eta gauzak errazago ulertzen dira; gaur haur bat adimen urritasunarekin jaiotzen bada, gurasoak zoriondu egiten dira; ume horietaz arduratu egin behar da kezkatu ordez”.

Aurrerapen izugarriak lortu arren, oraindik ere asko gelditzen da egiteko. Haur hauek beste umeek bezalako beharrak dituzte: maitasunarena, heziketarena, etxe batena, lanarena, lagun taldearena eta etorkizuna prestatzearena. Ezberdintasun bakarra: helburu hauek lortzeko laguntza gehiago eskatzen dutela adimen urriko neska-mutilek.

Hasiera batean eskolarik ez zegoen gaztetxo hauentzat; beren gurasoek sortu zituzten ikastetxe berezi batzuk; gerora lortu zuten heziketa sare normalean sartzea; hau oso aberasgarria izan

zen batez ere beste haurrentzat. Neronek bizi izan dut esperientzia hau Santo Tomas Lizeoan.

Gero lanaren arazoa iritsi zen. Arlo honetan Jose Antonio Zabala aritu zen buru-belarri; gaur normala iruditzen zaigu adimen urrikoak lantokietan ikustea, baina garai hartan ez zen horrela. “Gureak” tailer babestuak aitzindariak izan ziren pauso garrantzitsu hau ematerakoan.

Azkenik, etxebizitza lortzea izan zen ibilbide luze eta nekoso honen xedea. Atzegik sortu zituen orduan “elkarbizitza unitateak”; horrela, adimen urrikoak hirunaka edo launaka bizitzen ziren etxe batean. Gaur, aldiz, etxebizitza babestu baten jabe izatea da beren ametsa.

Testigantza pare bat:

Amaia Fernandezek Pasaiako Udalan lan egiten du goizeko 09:00etatik 01:00era. “Egiten dudana asko gustatzen zait”, dio. 24 urte ditu eta garbi frogatzen du adimen urritasuna ez dela oztopo lan profesional bat egiteko. Egunaren beste orduetan musika entzuten du, zinemara joaten da, lagunekin irteeraren bat edo beste egiten du...

Maidar Olaizola Irungo Elkar liburudendako arduraduna da; berarekin lan egiten du eguneko ordu batez adimen urritasuna duen Felixek. Bere zeregina: liburu bakoitza bere lekuan ipini, hautsa kendu eta abar. Honela dio Maidarrek: “oso sinpatikoa eta edukatua da, biziki ongi betetzen du bere eginkizuna. Garrantzitsua da Felixentzat liburudendako lana: besteekin erlazioan eta guztiz integratzea lortzen du eta”.

Utopia gidari dutelarik eta gero eta atzegizale gehiagorekin kontu dezaketela oharturik (Gipuzkoan 8.200 kolaboratzaile dira), gizarte abegitsu eta sentsibilizatu baten alde lanean aritzeko ilusioz beterik daude Atzegiko kideak. “Azken batean, guraso ororen ametsa da gurea: seme-alabei heziketa, lana, etxebizitza eta astialdia ematea”, dio Josean Idoeta Atzegiko lehendakariak.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

Larunbatean denok Bilbora!

Ezker abertzaleak egoera politiko berri bat behin betiko ireki du. Euskal Herriarentzat agertoki demokratikoa antolatzeko eta proiektu independentista eta sozialistaren bidea indartzeko helburuarekin, alderdi berri bat legezatzeko urrats erabakigarriak egin ditu. Ezker abertzaleak bere proiektu politikoaren aldeko ildo bide politiko eta demokratikoetatik gartzeko determinazio osoa duela erakusten dute urrats horiek.

Haatik, kezka hartu dugu alderdi politiko batzuen jarrera, izan ere, erosoago daude alde anitzetako eskubideak urratzen diren testuinguru politikoan. Beldurra diote Ezker Abertzaleari zein honen proiektu politikoari. Beldurra diote honek abian jarri duen prozesuari, konfrontazio

demokratikoa ezaugarri nagusi duen prozesuari. Beldur diote hitzari. Beldur diote argudio politiko demokratikoei.

Horren adibide da Sortu alderdi politiko berriaren inskripzioa geldiarazteko Espainiako Gobernuak emandako agindua; horretarako epaitegietara desbideratu du alderdiaren legezotasunaren gaineko erabakia. Erabateko ausardia falta adierazten du harturiko erabakiak. Euskal jendartearen gehiengoari bizkar emanez, legez kanporatzea helburu jarri du PSOEren gobernuak, minimo demokratikoak errespetatuko diren egoera politikoari dioten beldurra agertuz.

Ezin uka, ordea, aurreko astelehenean Euskalduna jauregian osatu zen argazkia adierazgarria izan ez zenik. Areago, Euskalduna jauregitik Euskal Herriko txoko

guztietara zabaldu da legeztapenaren aldeko bat egitea. Euskal jendartearen gehiengoak bat egiten du baldintza demokratiko minimoak errespetatuak izango diren egoera politiko bat eraikitzeko apustuarekin. Euskal jendartearen gehiengo zabalak bat egiten du legeztapenarekin. Eta horren isla da larunbat honetarako sektore sozial eta politiko anitzetako pertsonak antolatu duten manifestazioa. Ezker abertzaleak bat egiten du manifestazio horrekin, eta usurbildar guztiei Bilbora joateko deia egiten die. Ez dugu dudarik. Herri mobilizazioan dago legalizazioarako gakoa, eta lehendabiziko parada Bilbon daukagu. Hurrengo larunbatean, beraz, denok Bilbora!

Usurbilgo Ezker abertzalea

Berrikuntzak diru-laguntzen irizpideetan

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarriak kaleratu eta gero, joan den otsailaren 8tik zabalik dago kultur eta kirol arloetako ekintzak antolatzeke udal diru-laguntzak eskatzeko epea. Eskaerak martxoaren 2ra arte aurkez daitezke.

Berdintasun irizpidea

Diru-laguntzak ematerakoan, berrikuntza gisa berdintasun alorrari lotutako irizpideak txertatu ditu Udalak aurtengon. Oinarrietan aipatzen denez, "ez zaie dirulaguntzarik emango kideak aukeratzeko prozesuan edo jardunean sexubereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeek". Gaineratzen denez, kirol elkarte edo erakundeen estatutueta ere gai honek jasoa behar du. Araudietan halakorik argitzen ez bada, "elkarte edo erakundeek hiru hilabeteko epea izango dute bere estatutuak egokitzeko".

Kultur arloko diru-laguntza deialdian beste hainbeste. "Diruz lagundutako jardueretan eta jardueren iragarpenean hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da. Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereoti-

patuan islatu behar da, 4/2005 Emakumearen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak agintzen duen modura. Berdintasun-betebehar hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan". Gaineratzen denez, "era berean, bereziki baloratuko dira gaitzat euskara eta hondakinen kudeaketa duten ekintzak".

Dirulaguntzei buruzko oinarriak eta eskabideak aurkezteko inprimakiak usurbil.net udal web orrialdean daude.

Dirulaguntzen prozedura

Martxoaren 2a igaro ostean, aurkeztutako eskabideak jaso eta ebaluatzeko garaia helduko da.

Diru-laguntza eman dela jakinarazi bezain laster, %75a ordainduko da, gainerako %25a emandako diru-laguntza justifikatu ondoren.

Kirol arloko diru-laguntzak

Eskariak non aurkeztu: Udal Kirol Patronatuko egoitzan, Oiardo Kiroldegian.

Banatuko diren laguntza motak: kiroltaldeen ohiko diru-laguntza zuzenak, kirol-teknikarien prestakuntza, herriko



KULTUR ETA KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA IREKI BERRI DA.

kirol egitura sendotzeko, gazteen arteko sustapena, laguntza bereziak.

Kultur arloko diru-laguntzak

Eskabideak non aurkeztu: udal errejistroan. Diruz lagunduko diren ekimenak gehienez ehuneko hauetan babestuko dira: ikastaroak %60an, irteerak %10ean, kanpamendu edota udako ekintzak %60n, eta gainerako kultur ekintzak %95ean.

Ika-mika

Usurbil, herri kutsakorrenetarikoa

Ezker abertzaleak saldu nahi du emunduan zehar Usurbil dela herri eredugarria ingurumena eta iraunkortasunari dagokionez. Zabor kudeaketaz kezkatua eta soluzio radikalak eta emaitza onekoak lortzen omen ditu; aire kalitateaz kezkatutik, hainbat eta hainbat ikerketa egiten ari da; berdin kutsadura elektromagnetikoari dagokionez.

Errealitatea bestelakoa da. Usurbil, Oriabaia gehien kutsatzen duen herrietakobat da, gehiena ez bada. Bai kutsadura industrialari dagokionez, bai herritarren kutsadura. Ur zikin guztiak inolako filtrorik gabe zuzenean ibaira doaz. Leku asko

tan lehenik baratzen artean joaten delarik (Zubieta, Atallu).

Usurbilgo ur zikin ia guztiak Loiolako araztegiara eramatekoak dira, obrak dagoeneko bukatzen egon behar leudeke, baina ez da horrela. Eta zer egin du ezker abertzalearen udalak? Dakigunez, ezertxo ere ez. Bitartean herritarrok eta udalean dauden enpresak Oriabaia eta bere biodibertsitatea akabatzen.

Iazko abuztuaren 26an udal alkateak idatzi bat zuzendu zuen non ohartarazten zion Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Sailari Aginagako Saria proiektuan aurrerapenak egon ezean

"Usurbilgo Udalak Saria-Mendebaldea Ibarreko zaharberritze proiektuaren partaidetza publikoa abian jarriko du epe laburrean". Beste prozesu partehartzailibat?

Jaun-andreok, kontu gutxiago eta ekimen gehiago! Loiolako araztegiara gure ur zikin guztiak emango dituen hodi eta bonbak eginak baleude, on gehiago egingo liokete Sariako padurari prozesu partehartzaila guztiak baino! Mehatxu gutxiago beste erakundeek eta elkarlan gehiago.

Informazio gehiago: www.h1usurbil.net

Usurbilgo Hamaikabat

Otsailaren 22an zabalduko dira babes ofizialeko etxebizitzetan izena emateko zerrendak

Babes ofizialeko 58 etxebizitzak zozketatzeko bidea zabalik dago jada. Asteartean ezohiko osoko bilkuran zozketarako oinarriak behin betiko onartu ondoren, otsailaren 22an zabalduko dira izena emateko zerrendak. Zozketa apirilean egitea aurreikusia du Udalak.

Lerrook irakurtzerako, apirilean zozketatuko diren babes ofizialeko etxebizitzetan zozketarako oinarriek behin betirako onartuak behar lukete, asteartean burutzekoa zen ezohiko osoko bilkuran. Lehenago, otsailaren 10ean Hirigintza Batzordeak gehiengo osoz behin betirako babesa eman zieten aipatu oinarriari.

Gobernu taldeko Xabier Mikel Errekondo eta Juanjo Olaizolaren eta PSE-EE-ko udal ordezkari Amaia Goyaranen aldeko botoekin onartu zen proposamena. Alkarbide udal taldeko ordezkari Salome Portuk abstentziora jo zuen.

MARTXOAK 14, AZKEN EGUNA

20 egun naturaleko epea egongo da Sekañan zein Agerreazpin eraikiko diren etxebizitzetan izena emateko

Bozketa aurretik, galdera eta zalantzen tarteak zabaldu zen. Salome Portuk Agerreazpi eta Sekaña eremuetan eraikiko diren etxebizitzetan inguruan, izena eman dutenekin bi eremuetarako poltsa bakarra edo bi osatuko diren galde-tu zuen.

Eraikitze lanak ere, hastear

Xabier Mikel Errekondok iragarri zuenez, zozketak kupoka egingo dira, baina poltsa bakarra izango da. Zinegotzi sozialistak bestalde, etxebizitzetan eraikitze lanak noiz hasiko diren



SEKAÑAN 22 (ARGAZKIAN) ETA AGERREAZPIN 36; HORIEK DIRA UDABERRIAN ZOZKETATUKO DIREN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK.

jakin nahi zuen. Alkateak erantzun zuenez, "hasiera batean martxoan". Urte honetako lehen seihilekoan lanak hasita egongo direla baieztatu zuen.

Guztira, 58 etxebizitza

Aipatu moduan, gaia batzordetik igaro ondoren, otsailaren 15ean burutzekoa zen ezohiko osoko bilkuran udalbatzaren gehiengo osoak babestu behar zuen proposamena.

Hurrengo pausoa, zerrendak irekitzea izango da. Otsailaren 22tik aurrera, Sekaña eremuan eraikiko diren 22

etxebizitzetan eta Agerreazpin altxatuko diren beste 36 etxebizitzetan zozketarako izena eman ahal izango da. 20 egun naturaleko epea egongo da, aipatu azken egun horretako, martxoaren 14ko arratsaldeko 15:00ak arte.

Izen ematea udaletxean

Non: udaletxean.

Epea: otsailaren 22tik martxoaren 14ra.

Ordutegia: astelheenetik ostiralera, goizez: 8:30-15:00.

Larunbatetan, goizez, 9:00-13:00.

2007ko zerrendekin zer egin aurrerago erabakiko da

Aurreko legegintzaldi amaieran, Olarriondo eta Ugartondo eremuetako etxebizitzetan zozketan parte hartzeko izena emateko aukera izan zuten herritarrek. Lau urte igaro dira ordutik, zerrendekin zer gertatuko den argitu gabe. Apirilko zozketarako 2007ko zerrenda horiek ez dute baliorik izango noski, elkarren artean zerikuri

ez duten lau promozio desberdin baitira Sekaña, Agerreazpi, Olarriondo eta Ugartondoko proiektuak.

Baina Xabier Mikel Errekondo alkateak iragartzen duenez, "bere unean zerrenda horien zentzuaz eztabaidatu eta erabakiak hartu beharko dira udazken aldera, lau urte igaro direla kontuan izanda".

Xabier Mikel Errekondo alkatea

“Eskubidezkoa den etxebizitza beharra ahalegin honekin dezente beteko da”

Babes ofizialeko 58 etxebizitza zozketatu eta esleituta baikor agertzen da Xabier Mikel Errekondo alkatea, hein handi batean herritarren etxebizitza premia aseko dela uste baitu. Gaiak urteotan izan duen bilakaeraren berri eman du lerrotan, alkateak. Datorren asteko NOAUA!n, Aztikerrek Udalarentzat etxebizitza premiei buruz herritarren artean eginiko inkestaren emaitzak argitaratuko ditugu.

“Ondo euskarrituta, lotua dago eta eman beharreko urratsak emanda, eta beraz, eskaintza erreal bat egin da. Eskubidezkoa den etxebizitza beharra ahalegin honekin dezente beteko da”. Hitz hauekin laburbiltzen du Xabier Mikel Errekondok, zertan den une honetan, bi hilabete barru zozketatuko diren etxebizitzaren gaia.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“1.100 etxebizitzatik gora planteatzen ziren Usurbilen, inolaz ere beharrik ez zegoenean”

Herrirako planteatzen ziren etxebizitza proiektuetan aldaketa bat baino gehiago izan da urteotan. Eta krisialdiak ere bete-betean harrapatu ditu egitasmoak. 2007an udaletxera ailegatu zirenetik, Errekondok gogorarazten duenez, “1.100 etxebizitzatik gora planteatzen ziren Usurbilen, inolaz ere beharrik ez zegoenean. Etxebizitza beharra alarma sozial bat bihurtu digute, etxebizitza bultzatzeko espekulatzeko interesa izan dutenen artean. Behar hori gaineratuz, landa eremua okupatzeko dinamika eta etxebizitza neurrigabeak bultzatuz. Hori zen Udalean sartuta egin genuen kritika”.

Baina ibilbide luzea izan du gaiak urteotan.



ASTE HONETAN EZ-OHIKO PLENDIA EGIN DA. GAI ORDENEAN, BABES OFIZIALEKO ETXE HAUEN ZOZKETARAKO BEHIN BETIKO DINARRIAK ONARTZEA.

Sekañako promozioa

Apirilean zozketatuko diren Sekaña eremuko 22 etxebizitzek alokairu sozialekoak behar zuten hasieran. Alkateak gogorarazten dutenez, “finantzatzeke Jaurilaritzaren inplikazioa ezinbestekoa zelako. Hiru milioi euroko inbertsioa eskatu eta Udalak bere horretan ezin diolako bakarrik honi aurre egin”. Alkatearen esanetan hiru urtez zain egon ostean, egitasmoaren ezezkoa jaso dute. Horregatik, dioenez, herriak behar batzuk dituenez, “babes ofizialeko etxe gisa aterako dira”.

Ugartondo, jabeen desadostasunak gaindituta

Ez aurrera ez atzera, egoera horretan geldirik egon da Ugartondon eraiki asmo ziren etxebizitzaren egitasmoa. Krisi egoerak jabeengan izan duen eragina izan da horren arrazoi nagusia. Errekondoren hitzetan, “Ugartondoko bost jabeak beren artean ez dira ados jartzen eta aurreikusitako baldintzak ez dira ematen. Urbanizazioak 11 milioi euroko kostua du eta Udalak ez du inondik inora ahalmenik hori mugitzeko. Beraien eskuetan geunden”.

Egoera ordea aldatu da, desadostasunak gainditu dira. “Jabeek mugitzea era-

baki dute, eta azken bileren ondorioz, eraikitzen hasiko dira”, dio Errekondok. Irigarri duenez, hileotan, “falta diren tresna urbanistikoak abian jarriko dira”. Kooperatiba moduan, udazkenean bertako lanak hastea aurreikusen du Udalak; babes ofizialeko 48 etxebizitza, eta beste 48 tasatu eraikiko dira Ugartondon. Guztira, 96 bizileku beraz.

Agerreazpi, etxebizitzak eta udal ekipamenduak

Lur eremu honetarako planteatua zegoen egitasmoa ere aldatu dutela azaltzen du alkateak. “Duela dozena erdi urteko ikuspegitik planteatua zegoen, eta etxebizitza pribatu eta libreak soilik ziren horko promozioan, bateko eta biko 37 etxetzar eta 36 pisu”, gogorazi du Errekondok. Aldaketak txertatu ditu egungo gobernu taldeak. Babes ofizialeko 36 etxebizitza eraikiko dira bertan. 37 etxetzarrak ez dira eraikiko. Aurrerago, 72 etxebizitza libre eraikitzea aurreikusia dagoen arren, oraingoz, hamar mila metro karratuko lur eremua libratu du Udalak, “beharko lituzkeen ekipamenduetarako, berde geratuko dira oraingoz. Nekazaritzarako ere izan daitezke, Usurbilgo produktuak bultzatzeko, ustiatzaile berrientzat...”.

Hainbat udalerrietako alkateek bilera eskatu diote Markel Olano ahaldun nagusiari

Erraustegiaren finantziazioaren erabat aurka agertu dira Gipuzkoako hainbat udalerrietako alkate. Haietako ordezkari bat, astelehenean Foru Aldundiko egoitzara bertaratu zen, besteak beste, Markel Olano ahaldun nagusiari gai honi lotutako erabakirik hartu ez dezan eskatu eta berarekin biltzera dei egiten duen idatzia erregistratzen.

Urnietan, Ikaztegieta, Aduna, Itsasondo, Eskoriatza, Antzuola, Villabona edota Usurbilgo alkateak bildu ziren Aldundiko egoitza atarian. Bertan zeuden, eta ez egonagatik, eurekin bat egin zuten beste hainbat udalen izenean, Xabier Mikel Errekondok Zubietan eraiki asmo duten errauste plantaren finantziarioarekiko desadostasuna agertu zuen. "Gipuzkoako udalari guztiok 21 urterako morroitzapean jartzen gaitu, bankuen eskuetan, zehazki Europako Inbertsio Bankua, Banesto eta La Caixa bankuen eskuetan".

MARKEL OLANORI ESKAERA

"Ez dezala erraustegiaren finantziarioari lotutako erabakirik har. Legegintzaldia amaitu arte behintzat"

Usurbilgo Udaleko alkateak gogorarazten zuenez gainera, "Europako zuzentzarauak azken aukeratzat jotzen du erraustegia, eta aldiz, Aldundiak lehenetsi baino ez du egiten". Gai hau udalekin batera eztabaidatu eta elkarlan horren baitan, erabakiak hartzera dei egin zuten alkateok. Horretarako, idatzi bat erregistratu zuten astelehenean, Foru Aldundiak Donostiako Gipuzkoa plazan duen egoi-



ASTELEHEN HONETAN, HAINBAT ALKATE FORU ALDUNDIAREN EGOITZAREN ATARIAN.

tzan. Edukia, atarian aurreratu zieten bertaraturako hedabideei. Bi eskaera nagusi helarazi nahi dizkiote ahaldun nagusi Markel Olanori. Batetik, epe laburrean berarekin bildu ahal izatea. Bestetik, herrialde mailan ordezkari politiko osoa ez dagoen artean, "ez dezala erraustegiaren finantziarioari lotutako erabakirik har. Legegintzaldia amaitu arte behintzat". Eskariak argiak direla zioten eta Errekondok gaineratu zuenez, "aintzat hartzea espero dugu".

Urte askotarako "hipotekaturik"

Hedabideetan argitaratu denez, Zubietako errauste planta finantzatzeko akordioa adostua dago, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoaren eta Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) artean. 195 milioi euro mailegatuko dizkio EIBk partzuergoari, 68 milioi euro emango dizkiote La Caixak eta Banestok eta Foru Aldundiak beste 125 milioi euro bideratuko ditu. Gipuzkoa Zero Zaborrek gogor salatu du erabaki hau, "urte askotarako hipotekaturik geratuko gara gipuzkoarrok".

Errauste-planta nork eraikiko duen argituko da egun hauetan

Itxura guztien arabera, FCC, Murias, Zerbitzu Elkartea, Altuna y Uria eta Inova enpresa taldea izango da Zubietan eraiki asmo duten errauste planta gauzatzeko baimena jasoko duena. EAJ-PNV, PSE-EE eta Hamaikabat alderdiatarako ordezkariak gehiengoz osaturiko San Marko Mankomunitateko kontratazio mahaiak lanen esleipena enpresoi ematearen alde agertu berri dira. Baina Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak du azken hitza.

Aralar taldeak, balorazio tekniko onena jaso duen enpresa taldeak usteko aldeko tratua jaso duela salatu zuen aurreko astean. Enpresetako bat, Zerbitzu Elkartea, EAJ-PNV-rekin loturiko pertsona batek zuzentzen duela adierazi zuten.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Josue
Igeltseritza:

606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

“Itsasoa”, hori izango da Inauterietako gaia

Gai zabala da, irekia, aukera asko eman ditzake... Arrazoi horiengatik guztiengatik, “Itsasoa” izan da aurkeztu diren gaien artean aukeratu dena. Otsailaren 8an amaitu zen mozorrozkeo ideiak emateko epea eta, beste batzuen artean, antolaketan direnek “Itsasoa” hautatu dute. Gogoan izan, aurten, martxoaren 5ean larunbata izango dela Inauteri festa.

Behin gaia erabakita, bi aste daude aurretik, gaiaren inguruko mozorroa pentsatu, landu eta egiteko.

Afaria Saizar sagardotegian izango da eta txartelak dagoeneko salgai daude Irratin, Txiribogan eta



DUELA BI URTE, PIRATAK IBILI ZIREN INAUTERIETAN. AURTEN, GAIA “ITSASOA” DELA JAKINIK, BERRIZ BUELTATUKO AL DIRA?

Txaranga doinuek alaituko dute mozorro festa

Ez da Inauteririk txarangarik Egabe. Baten faltan, bi izango dira aurtengo Inauteri festan. Eguerdietan, Zumarte Musika Eskolako txaranga arituko da kalejiran. Zumartxan taldeak, hala du izena ikasle gazteen txarangak, eguerdiko 12:00etan hasiko du bere ibilbidea.

Arratsaldeko 18:00etan, ordea, Burrenbazale txarangakoak arituko dira kalez kale, mozorro festa alaitzen.

21:00ak aldera, Saizar sagardotegian jarraituko du festa giroak.

Txartelak Irratin eta Txiribogan jarri dira salgai. Txartela aldeztatik erostea derrigorrezkoa izango da.



Udal eta foru hauteskundeak tarteko, Sagardo Eguna astebetez aurreratuko da

Maiatzaren 22an egokitzen zen aurtengo Sagardo Eguna. Baina udal eta foru hauteskundeak egun horretan jarri direnez, Sagardo Egunaren Lagunak elkarteko kideek astebetez aurreratu dute sagardo festa. Beraz, 2011 honetan, Usurbilgo Sagardo Eguna maiatzaren 15ean ospatuko da.

Askok jai eguna hartzen dute Sagardo Egunaren biharamuna. Beraz, kontuan izan, aurten astebetez aurreratu dela festa.



SAGARDO EGUNA MAIATZAREN 15EAN IZANGO DA AURTEN.

Iñaki Agirresaroberen eskutik, “Urte sasoién indarra” diaporama Sutegin

Urte-sasoi ezberdinetan ateratako argazkiez osaturiko bilduma. Horrela laburbildu daiteke Iñaki Agirresarobek (Tola ezizenez ere ezaguna) prestatu duen diaporama. Larunbat honetan ikusgai izango da Sutegin.

Argazki gehienak Usurbilen atera baditu ere, badira beste inguruetan ateratako irudiak ere. Egilearen esanetan, “inguru berak urte-sasoi desberdinetan jasaten duen aldaketa naturalaz gain, gizakiak azken urteotan eraldatzen ari duenaren gogoeta egiten da” honako diaporaman.

“Urte sasoién indarra”

Otsailaren 19an larunbata, arratsaldeko 18:00etan Sutegin.
Egilea: Iñaki Agirresarobe.



DIAPORAMAN IKUSIKO DUGUN ARGAZKIETAKO BAT IZANGO DA HAUXE.

Oriaren XVII. Jaitsiera ospatuko da larunbatean

Antolatzaileen esanetan, inoizko parte hartzerik handiena izango du larunbat honetan, otsailaren 19an ospatuko den Oriako XVII. Jaitsiera. Izena emateko epea atzo itxi aurretik, jada, 64 ontzi bertaratuko direla baieztatua dago. Txapelketa azkenez, 2009an jokatu zen, iaz bertan behera geratu baitzen. Orduko hartan, San Pedrok irabazi zuen, 6000 metroko proba nagusian.

Proben hasiera, Aginagan

Inguruko udalerrietatik bakarrik ez, urrunagotik ere etorri ohi dira txapelketan parte hartzera. Besteak beste, Herrialde Katalanetatik. Aurten Fuerteventuratik CR Herbania arraun elkarteak dator. Txapelketa arratsaldeko 15:30etan hasiko da.

Bi saio burutuko dira, bi distantzia desberdinetako ibilbideekin.



64 ONTZIK HARTUKO DUTE PARTE ORIAKO JAITSIERAN.

Biak ere Aginagan hasiko dira; probetako bat, Saikolan, bestea Mapil parean. Bi proben helmuga, Orion kokatuko da.

Maila eta ibilbide ezberdinak

-Mailak: jubenilak mutilak, jubenilak mistoak (neska-mutilak), jubenilak-seniorrak mistoak, beteranoak,

beteranoak mistoak, absolutuak mutilak, absolutuak emakumezkoak.

-Ontziak: llagut cáta, llaüt mediterraneo eta traineruak.

-Ibilbideak: 4000 metrokoa Sarikolatik Orioko zubiperaino (Saikola-Orio); eta 6000 metrokoa Mapiltik Orioko zubiperaino (Aginaga-Orio).

Patxi Azkonobieta, Urdaira:

“Oso sagardo ona izango den esperantza dut”

Hogei urte bete ditu Urdairak. Eta orain arte bezala, Aginagako sagardotegiak eskaintza oparoa egiten jarraitzen die bertaratzen diren bezeroei; kalitateko sagardoa, sagardotegiko menutik haratago doan jatekoa, eta kokaguneari begira, paraje ederrak. Patxi Azkonobietak dakartza denboraldi honi buruzko xehetasunak.

NOAUA! Zer moduzko ekoizpena duzue aurten?

Patxi Azkonobieta. 130.000-150.000 litro inguruko ekoizpena izaten dugu, ahal dena hemengo sagarrarekin egina. Aurten, gure etxean behintzat iazkoa baino atzerago dator. Berdexea, hotzak garai txarrean harrapatu zituen eta. Baina gero oso sagardo ona izango den esperantza dut. Bezeroak nahiko gustura daude. Denboraldia aurrera doan bezala, sagardoa egiten ari da.

PATXI AZKONBIETA

“Enkarguz,
txangurroa eta arkumea
ere jartzen ditugu”

N. Sagardotegietako menu tradizioanletik haratago doa zuen jateko eskaintza?

P. A. Menu tradizioanletik pixka bat ateratzen gara, enkarguz. Txangurroa eta arkumea ere jartzen ditugu.

N. Santa Ageda bezpera ospatu berri duzue. Ospakizunek mugitzen al dute bezeroa sagardotegietara?

P. A. Santa Ageda eskean irtendakoek, ibilbidea bukatzea hona etortzeko ohitura dute. Poz handia ematen digu. Urtero etortzen dira, haien inguruan ere jendea biltzen da. Ospakizun honek gainerako bezeroak ezustean harrapatzen ditu eta ezustekoek xarma gehiago dute.

N. Sagardoak labela izatea egoki deritzozu?

P. A. Ez dakit beharrezkoa den, ona dela uste dut. Polemika gauza berri guz-



“HEMENGO BASERRITARRAK ANIMATU BEHARKO DITUGU, SAGASTIAK JARRI ETA IZATERA”, HALA USTE DU URDAIRA SAGARDOTEGIKO NAGUSIAK.

tiak izaten dute eta beharrezkoa dela uste dut gainera. Ona dela uste dut, sagardoarentzat etiketan zerbait gehiago jartzea iruditzen zait. Adierazgarria da ez bakarrik sagardoarentzat, baita sagarra ekoizten dutenentzat ere. Hemengo baserritarrak animatu beharko ditugu, sagastiak jarri eta izatera. Bestela jai dugu. Lagundu egingo duela iruditzen zait.

N. Hogei urte, hogei txotx denboraldi. Denboraren joana nola islatu da sagardogintzan?

P. A. Dena aldatu da. Txotxeko garaia bera aldatu da. Lehen gauzez bakarrik irekizetik, orain ia asteburu eguerdian gauzez baino lan gehiago egitera igaro gara. Sagarra lantzeko moduetan ere dena aldatu da.

N. Berrikuntzek sagardotegien xarman eragin al dute?

P. A. Pentsaera desberdinak egongo dira. Gaur egun orduan baino sagardo egitea hobea dela iruditzen zait. Ez dut esango zergatik, bakarrik lan egiteko eragatik. Iruditzen zait, produktuentzat askoz hobea dela orduan baino. Orduan ere ahal zena eta ahal zen ondoen egiten zen. Gaur egun errazagoa da.

N. Sagardo berria dastatzeko, zergatik aukeratu beharko genuke Urdaira?

P. A. Toki sanoa delako, eta bisita bat

egitea, zer gutxiago eskatu behar dugu. Jan eta edan ederki egingo dute. Politia izaten da. Hortik aurrera, paraje zoragarria da hau. Nahi duenak urtean bisitaxo bat egiten badigu, estimatzen dugu.

Sagardoaren kultura

N. Belaunaldi berrietara transmititu al da sagardoaren inguruko kultura?

P. A. Transmititu da sagardotegiko joera. Baina sagardotegiko orduko jokaera eta oraingoa ez dira oso berdinak. Batzuentzat bai, baina orduan, tortilla egiten zenuen eta gainerakoa bezeroek ekartzen zuten. Etortzen zirenak gizonezkoak ziren. Gaur egun, emakumeak, haurrak, aiton-amonak, familiak denak etortzen dira. Pozgarria eta positiboa dela iruditzen zait. Zergatik etorri behar dute batzuk eta besteek ez? Ohitura hura zegoen lehen. Orduan, sagardoa edatera etortzen ziren, jatea ez zen garrantzitsuena. Gaur egun, sagardoa edota jatekoarekin gozaten du jendeak.

Urdaira sagardotegia, 16 kupel

Informazioa, erreserbak: 943372691.

Zenbatentzat lekua: 100-150 lagun.

Irekiera epea: urtarrila erdialdetik maiatza hasierara arte.

48 hautetsiren babesa jaso du Gernikako Akordioak



Urtarrilaren 2an, Gernikako Akordioarekin bat egin zuten hainbat herritar bildu zituzten frontoian. Aspaldiko partez, sentsibilitate ezberdineko jendeak bat egin zuen. Honakoan, korronte politiko ezberdinetakoa hautetsiak izan dira Gernikako Itunarekin bat egin dutenak.

Iazko irailean, alderdi, sindikatu eta gizarte eragile ezberdinek Gernikako Akordioa izeneko hitzarmena sinatu zuten. Orain, herriz herri ari dira akordio hori bultzatzen. Usurbil Gernika taldeak azken hamarkadetan hautetsiak izan diren guztiei gutun bana bidali zien. Eta argazki hau, deialdi horren lekuko da. Pasa den

igandean Sutegin, herriko 48 udal hautetsik bere babesa eman zioten Gernikako Akordioari. Bertan izan ziren egungo alkatea eta hainbat zinegotzi ere, hala nola aurreko urteetan zinegotzi izandakoak ere. Sentsibilitate desberdineko hautetsiak bildu ziren: Ezker Abertzalea, Aralar, EAJ-PNV, independenteak...

Atxikimendu gehiago jaso ditu Gernikako Akordioak

Udaletxeko Langileen Komiteak bat egin zuen duela bi aste, Gernikako Akordioak jasotako adierazpenarekin. Pasa den astean, NOAUA!ko Zuzendaritza Batzordeko kideek eta Andatza Elkartekoek gauza bera egin zuten.

NOAUA! Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak Gernikako Akordioarekiko bere atxikimendua eman du. Euskal Herrian ireki den prozesua garatzen eta finkatzen laguntzeko akordioak izan dezakeen garrantziaz jabeturik, Andatza Mendizale Elkartea ere Gernikako Akordioa atxikitu da.



NOAUA!KO ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK.

Andatzakoak, Pagoetan barrena



Aiatik abiatuta, Andatzako kide-
Aek ibilbide polita osatu zuten
aurreko igandean. Burnigurutzeko
basoko bidezidor lauan, Arrospide
aparkalekuko bidegurutzean,
Azkorteko elur zuloan eta Sagastizabal
pagadian barrena ibili ziren.

“Gurutzearen inguruan gogor

jotzen zuen hego haize indartsuak,
gogortu egin zuen guztion ibilera.
Gainaldeko zelaia zeharkatu ondo-
ren, Hernio Txikiko gunetik beherako
bidea hartu genuen Aiara itzultzeko”.

Aian salda, pintxo batzuk eta sagar-
doa hartu ondoren, etxera itzuli ziren
eguerdirako.

Torturaren aurkako aldarria



Joxe Arregi zizurkildarra Carabanchelgo espetxean hil zela 30 urte bete ziren
Jpasa den igandean. Geroztik, torturaren aurkako egunean bilakatu dute otsai-
laren 13a. Torturaren aurkako lana areagotzeko eskatu zen Mikel Laboa plazan
egindako elkarretaratzean.

Usurbilen izango dira

BasHerri taldeen

II. Topaketak

Gero eta gehiago dira baserriko
Gproduktuak herriko baserrie-
tatik zuzenean etxera eraman nahi
dituzten herritarrak. Hortik ekime-
naren izena, BasHerri. Ugaltzen
doaz eta datorren astean gure herrian
elkartuko dira hainbat talde.

Topaketa bazkari batekin amaitu-
ko da, otsailaren 26an larunbata
Artzablen. Izena emateko:

E-postaz: ebel@ehneg.net

Telefonoz: 943 654 281 (Maider)

Otsailaren 25ean

Artzabalgo aretoan

Trebakuntza eta esperientzien
elkartrukatzea (baserritarrak).

10:00-11:00 BasHerri taldeak
Gipuzkoan.

10:30-13:30 Prezio tailerra:
metodologia eta diskurtsoa.

14:30-17:00 BasHerrien balora-
zioa eta esperientzien elkartrukatzea.

17:00-18:00 Baserritarren Hazi-
Berri ekimenaren proposamena.

Otsailaren 26an

Udarregi ikastolan

BasHerrien II. Topaketak (kontsu-
mitzaileak eta baserritarrak). Besteak
beste, BasHerri taldeek Gipuzkoan
izan duten bilakaera ikusi eta espe-
rientzien elkartrukea egiteko baliat-
uko da goiza.

Hala nola, Iparraldeko AMAP tal-
dearen berri emango zaie bertaratzen
direnei. Artzabalen egingo den baz-
karia eta bertso-musika-jam sesioa-
rekin amaituko da Topaketa.

Poxpolin
MERTZERIA
943 36 82 06
Zubiaurrenea 3, baxua

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Saharako emakumeen aldeko kontzertua

Zestoako Leok'k taldea Sutegin arituko da ostiral honetan

Leok'k musika taldea 1968 urtean sortu zen Zestoan. Urte batzuk egin zituzten zuzenekoak eskaintzen. Baina 70eko hamarkadan desagertu zen taldea. Hala ere, Saharako emakumeei elkartasuna adierazi asmoz, berriro ere taula gainera igotzea erabaki zuten 2006an. Izandako emaitza ona ikusirik, iazko irailean 'Une bat...' diskoa argitaratu zuten. Ostiral honetan, Leok'k taldeko kideak Sutegin izango dira, 20:00etan hasiko den kontzertuan.

Egunerokotasunean, emakumeek dute sahararren kanpalekuetako ardua guztia. Egoera horretaz jabetuta, Saharar Emakumeen Batasun Nazionala diruz laguntzea erabaki zuten Leok-k taldekoek.



LEOK'K, LEHEN. 60KO HAMARKADA AMAIERAN OSATU ZEN TALDEA ZESTOAN.

“Une bat...” aurkeztuko dute

Diru laguntza hori lortzeko, disko bat kaleratu zuten 2006an. Gaztetan entzuten zituzten kantuak euskaratu zituzten. Tartean, The Rolling Stones, Deep Purple eta The Beatles-en abestiak, besteak beste.

Iaz, “Une bat...” diskoa argitaratu



LEOK'K, DRAIN. 2006AN ITZULI ZIREN, SAHARAKO EMAKUMEEN ALDEKO LAN BATEKIN.

zuten. Ostiral honetan, Leok'k taldeko kideak Sutegin arituko dira, iluntzeko 20:00etan hasiko da kontzertua.

Sarrerak aldeztatik aurretik eskura daitezke Oiardo kiroldegian, 5 eurotan. Egunean bertan ere salgai jarriko dira, 8 eurotan.

Udalak antolatu du kontzertua.

Zumarteko ikasleak, Andoaingo Piano Jaialdian

Asteburu honetan, Andoaingo AVI. Piano Jaialdia ospatuko da. Beste urte batzuetan bezalaxe, honakoan ere Zumarte Musika Eskolako hainbat ikaslek hartuko dute parte: Amaieur Caballero Eizagirrek, Maria Elozegi Azurmendik, Ainhoa Azpiroz Iztuetak eta Maialen Iñarra Arregik. Basteroko auditorioan egingo dira piano saioak.

Euskal Herri osotik etorritako pianojoleak bilduko dira asteburu honetan Bastero Kultur Etxeko auditorioan.

Maila eta modu ezberdinetan egingo da piano jaialdia. A mailan, adibidez, Amaieur Caballero Eizagirre eta Maria Elozegi Azurmendi arituko dira lau eskutara. Helen C. Pace konpositorearen “Israeli Dance Festival” obra interpretatuko dute.

C mailan eta lau eskutara, Ainhoa Azpiroz Iztuetak eta Maialen Iñarra Arregik C.H. Nortonen “Bolero” obra joko dute.

Parte hartzaile guztiek urrezko, zilarezko edo brontzezko domina eta agiri bana jasoko dituzte.



OTSAILAREN 19AN ETA 20AN EGINGO DA ANDOAINGO PIANO JAIALDIA.

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK


ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

Patri Jatetxea

K./nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kopa irabaztea, jubeniletako futbol taldearen erronka

Ez zuten denboraldi hasiera gozoa izan, baina Kopa jokoa duten honetan ordea, sailkapeneko lehen postuan dira. Erronka ekaineko finalean egotea izango da. Hogei jokalariz osaturiko jubenilen lehen urteko futbol taldea gogotsu dabil bere jardunean, azken aldiko emaitzak bultzatuta. Helburutik geroz eta gertuago.

NOAUA! Talde berria osatu duzue aurten. Berregituratze lana zer moduz joan da?

Iñaki Ubiria. Ni ere berria naiz, bi jokolari ekarri ditut Martutenetik. Kadete mailatik zortzi jokalariz igo dira. Hasieran pixka bat zaila izan zen, lehen hiru norgehiagokak galdu genituen. Orain zortzi jarraian irabazi ditugu. Zaila izan da baina egoera asko aldatu da.

N. Entrenatzaile moduan, zer aldaketa sumatu dituzu Martutenetik Usurbila etortzean?

I. U. Donostiako taldeak hiriburuko zonalde guztietako jokalariz osatuak daude. Hemen guztiak batuta daude. Denak klase berdinerara doaz, denak lagun talde berekoak dira. Horrek desabantaila baino abantaila gehiago ditu. Familia modukoa da, eta ni gusturago sentitu naiz.

N. Datozen hileotarako zer helburu dituzue?

I. U. Helburua ahalik eta posturik



KOPA JOKATZEN HASI ZIRENETIK, PARTIDA GUZTIAK IRABAZI DITUZTE.

gorenean sailkatzea zen. Igoera mailarako hiru puntura geratu ginen. Orain, darماغun joerarekin ahalik eta urrutien iristea da. Kopa irabaztera ailegatuko bagina, horixe litzateke helburu nagusia.

N. Konfiantzaz gain, taldearen beste zer ezaugarri nabarmenduko zenituzke?

I. U. Konfiantzaz gain, batuta daudela. Eta hori oso garrantzitsua da. Futbol zelaitik kanpo denak elkarren artean oso ondo moldatzen direla ikusten dugu. Kanpokoa gero futboleant islatzen da, entrenatu eta neurketak jokatzera.

N. Kopa txapelketa noiz arte luzatuko da?

I. U. Liga maitatzean amaituko da. Sailkapeneko lehen bi postuetan daudenak sailkatzen dira. Hasiera batean, oso ondo goaz, lehen postuan baikaude.

Hortik aurrera, ailegatzen garen arte. Ekaina erdialdera jokatu da finala. Bertara ailegatu eta denboraldia ahalik eta ondoen bukatzea espero dugu.

N. Entrenamendu saioetan zer giro sumatzen duzue?

I. U. Entrenatutakoa partidant ateratzen dela irakasten saiatzen gara. Alegia jarrera ona bada, partidant aterako dela. Gure entrenamendu saioak, azterketen mende daude, aipatu egunotan, jendea falta baita. Bestela, saio bakoitza alde aurretik prestatzen dugu. Ordubeten edo eskaintzen diogu prestaketa lanei.

N. Talderi zer esan nahi zenioke?

I. U. Oso gustura gaude eurekin. Denbora gehiagoz beraiekin lan egiten jarraitzea espero dut. Eskerrak denei egiten duten lanagatik.

Udaberri Pilota Txapelketa

OTSAILAK 18, OSTIRALA

Aginagan arratsaldeko 20:00etan
ESKUZ BINAKA NAGUSIAK 1. mailan
USURBIL - HERNANI
(Xabier Errasti - Asier Katalina)

ESKUZ BINAKA KADETEAK 1. mailan
USURBIL 2 - URNIETA
(Iñigo Ibargoien - Josu Furundarena)

PALETA GOMA GIZONAK 2. mailan
USURBIL 2 - MUNDARRO
(Imanol Esnaola - Xabier Murua)

OTSAILAK 19, LARUNBATA
Usurbilen goizeko 10:30ean
ESKUZ BINAKA KADETEAK 3. mailan
USURBIL - MUNDARRO
(Jokin Irazusta - Mikel Portularrume)

ESKUZ BINAKA NAGUSIAK 3. mailan
USURBIL - IGELDO
(Julen Gesalaga - Markel Galarraga)

Urrezko domina eskuratu du Irati Larrañagak



Argazkia: Jon Ander, Elikker

Irati Larrañaga junior atleta gazteak Euskadiko Txapelketa Nagusian urrezko domina lortu duela jakinarazi digu irakurle batek noaua.com web

orrialdean. Salto hirukoitzean, 11.34 metroko jauzia eginda. "Gainera marka horrekin Espainiako Txapelketarako gutxieneko marka eskuratu du".

Agenda!

Otsailak 18 ostirala

- Leok'k taldearen kontzertua,
20:00etan Sutegin.

Otsailak 19 larunbata

- Mendi irteera Sariara, 11:00etan
irteera Mikel Laboa plazatik.

Otsailak 23/ 25

- Ekozinemaldia. 19:00etan Sutegin.

Otsailak 26 larunbata

- Kantu-jira. 19:00etan Mikel Laboa
plazan.

Goardiako farmaziak

Otsailak 17, osteguna

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 18, ostirala

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 19, larunbata

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 20, igandea

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 21, astelehena

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 22, asteartea

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 23, asteazkena

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 24, osteguna

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 25, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 26, larunbata

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 27, igandea

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak
irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpurua, Latxumbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.

Oria ibaia babesteko egitasmoa aurkeztuko du Udalak

Kontserbazio Bereziko Eremu Kizendatzeko plana osatzen ari da Eusko Jaurlaritzak. Aipatu izendapena jasotzeko neurriak eta mugaketa zehatza lantzen ari da. Tartean, Oria itsasadarrari dagokiona.

Martxoaren 7ra arte, kontserbazio plana informazio publikoan jarria izango du Jaurlaritzak. Horren haritik bi ekitaldi antolatu dituzte Usurbilgo Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarrekin. Larunbat honetan, otsailak 19, mendi irteera burutuko da Saria ibarrara. 11:00etan Mikel Laboa plazatik irteera eta itzulera, 13:00-13:30 artean. Bestalde, otsailaren 25ean Oria itsasadarreko Kontserbazio Bereziko



SARIA IBARRA BISITATZEKO
AUKERA DAGO LARUNBAT HONETAN.

Eremua eta Saria ibarra leheneratzeko abian den proiektua aurkeztuko dute Artzabalen, iluntzeko 18:30ean.

Informazio gehiago, usurbil.net udal web orrialdean.

Santixel Jai

Batzordearen bilera

Datorren astean, otsailaren 23an asteazkena, Usurbilgo Santixel jaietako lehen bilera egingo da. 18:30ean, udalean.

1979ko kinto afaria

1979ko kinto afaria antolatu dute martxoaren 5erako. Izena Txiribogan eman behar da, otsailaren 27a baino lehenago.

Odol ematea

Urteko bigarren saioa martxoaren 7an izango da, astelehena. Orduategia hauxe: 18:00etatik 20:30etara ambulatorioan.

Gure Pakearen oharra

Gure Pakeako zuzendaritza Gbatzordeak deialdi bat egin nahi du bere bazkideen artean; ohar honen bidez: "Urtarrilean egin genuen biltzar nagusian azaldu genuen batzordea berritu behar zela, baina oraingo bostek utzi dute beren kargua, eta bazkide bat sartu zaigu batzordean. Hau ikusita, honela ez dago jarraitzerik, zortzi lagunena lana lauok egitea ezinezkoa baita.

Inork sartu nahi ez badu batzordean, neurri batzuk hartu beharko ditugu, adibidez: urteko jarduerak moztu edo gutxiago jarri, jokoak, ibilaldiak...

Batzordetik azken deia egiten dugu lau lagun ea animatzen diren batzordea osatzeko eta hartara denon artean lanak errazago egingo ditugu".

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
platear konbinatuak

TABERNA

ETXEBIZITZA

- Kaxkoan pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komona. Tlf: 670070562
- Santuenean etxe bat alokatzen da. 679 366 415.
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroekin. 685 731 729.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitua eta bizitzaren jarrezko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 477 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela txime-nearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauetz).
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitua eta berri-tua. Interesatuak deitu: 637225620.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailen. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean.

671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- 5 plazako Roller karabana bat daukagu salgai abantzea eta gainerako akzesorioekin. 3500 euro. 676453176.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dute Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-esaerak

- Emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Interesatuak bazuete 615756893.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrek emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udaregi Ikastolako idazkarizatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordutegi malgua (egunez zein gauetz) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziarik eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 626344882.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrek ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko: 622 065 461 (Alex).
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldean orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Urtarrilaren 16an Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Umea eramateko "mendiko motxila" erosiko nuke. 647973854.
- Hemengo intxaurrek salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60. Eburne.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113

**"Zorionak Xabat!"**

Otsailaren 20an urtebetetze eguna, 7 urte beteko dituzu, muxu handi bat eta zorionak etxekoan partez!

**Zorionak Nagore!**

25 urte bete dituzu, eta bihotzez egun polita opa dizut. Zure gizonaren partez milaka muxu eta ondo pasa.

**Zorionak Imanol!**

Otsailak 23an 6 urte egingo dituzu. Txokolatezko muxuak, besarkada handi bat etxekoan partez. Ondo pasa!

**Zorionak osaba!**

Hurrengo astean 24 urte betetzen dituzu, a ze mordoak! Muxutxu goxuak Danel, Unax eta etxekoan partez!

**Zorionak Nahia!**

Otsailaren 19an 4 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu potolo bat Zuhaitz eta etxeko guztien partez!

**Zorionak Xabi!**

Otsailaren 25ean 8 urte egingo dituzu. Muxu handi bat zure gurasoen partez.

HILDAKOAK

Antonio Zubeldia Iribar
Otsailaren 13an hil zen 90 urterekin

**HILDAKOAK**

Ambrosi Zugasti Legorburu
92 urterekin hil zen otsailaren 13an



Oharrak, zorion agurrak, jai edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. erredakzioa@noaua.com
* Jaiotzen datuak Usurbilgo Bake Epaitegian bakarrik hartzen ditugu.

OSASUN GIDA 2011



**USURBIL
OPTIKA**

Enzimarenko aparatuak • Igerlekuko tapoiak, neurrira eginda
BEHERAPENIAK, eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10. • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

**50€-ko
BALEA**

BETAURREKO
PROGRESIBOETAN
(HOYA)



FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxa: 943 370 306



Kima
MASAJE LEKUA

-Kirol masajea
-Masaje terapeutikoa
-Kolonaren hidroterapia
(idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA



**iturralde
botika**

Tomas Iturralde botika
R.P.S. N° 88/07

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopatikokoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

Huginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

AURTEN ALDAPARIK EZI!

Hurbilogo txartelarekin ordainduz gero

Deskontua urtarrilaren 15etik otsailaren 28ra.



hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalaritza Ekarletoa

